

22

Ibilbide motza

PR-A 72

IOAR MENDIRAKO IBILBIDEA

Seinaleztapena



Ibilbidearen jarraipena



Norabide aldaketa



Norabide okerra

Santa Cruz de Campezo / Santikurutze Kanpezu



LEGENDA

Irteera	Interes lekua
Helmuga	Ikuspegia
Eraikin erlijioso	Kirolgunea
Hilerria	

0 150 300 450 600 750 m

1:22.000





ARABAKO MENDIALDEKO ibilbide motzen sarea

FITXA TEKNIKOA

	Distantzia	13,2 km
	Denbora	4h 00'
	Zailtasuna	Ertaina
	Ibilbide mota	Zirkularra

Mendi ibilaldi honi jarraituz, bidaztiak mendian gora egiten du pagadien gerizpean, loar mendira hurbilduz. Ondoren, gailurretik ibiliz eta paisaia eder-ederra zeharkatuz, Costalera mendiaren oinean kokaturik dagoen Nazarreko mendatera doa eta, azkenik, bide malkartsu batetik Ibernaloko ermitara jaisten da.



www.arabakomendialdea.eu

Arabako Mendialdeko
Kuadrilla
Gasteiz - Lizarra errepidea, 7
01110 Santa Cruz de Campezo
(ARABA)

945405424

arabakomendialdea@arabakomendialdea.eu

Eskualdeko turismo bulegoa
Aintzinako Vasco-Navarro Trenaren
ibilbide berdearen Interpretazio Zentroa
01128 Antoñana
(ARABA)


945410577



SANTIKURUTZE KANPEZU. Samuel Picaza plaza. Plaza hori luzetara zeharkatzen da, hegoalderantz igotzen delarik. Goealdean, bide bat gurutzatzen da eta zuzen segitzen da hormigoizko pista batetik loar mendira seinaltatzen duen geziari jarraituz. Goranzko bidean, hilerrira eta objektu handientzako zaborregira doazen ezkererako bideak atzean utzi behar dira. 1,2 kilometro ibili ondoren, futbol zelai baten parean kokatutako hirugarren bidegurutze batera ailegatzen da **(1)**. Puntu horretan, ezkererako behar da, loar mendira doan bidea hartuz. Bide hori pinudi artean iragaiten da. Bidaztiak zaborregira doan bidea eta, 300metro aurrerago, ezkererako beste bide bat atzean utzi behar ditu. Jarraian, artadiak ordezkatzeko du pinudia. Handik kilo-metro batera, pista utzi **(2)** (3,1 Km), eskuinera biratu eta ezkererako bide bat hartzen da. Norabidea aldatu ondoren, pagadia iparraldean egongo da eta artadia, hegoaldean. Pagadi hostotsuaren gerizpean maldan gora egiten da eta, handik 900 metrora **(3)**, ezkererako bide bat atzean uzten da. 100 metro **(4)** aurrerago, mendi osoa inguratzen duen eta Nazarreko mendatera doan bidearekin elkartzen den ezkererako pista bat atzean uzten da. Gure bidean antzinako harzolarek arrastorik badago oraindik ere. 100 metrora, bidaztia zelaigune batera helduko da. Bertan dagoen bidegurutzeari **(5)**, ezkerreko jo behar da, goranzko adar belartsua hartuz (4,2Km). Zuzen jarraitu behar da lursail irekiago batetik eta, jarraian, ibar bide bat inguratu behar da. Ondoren, aldapa bat igo behar da pagadi gazte baten gerizpean. Handik 800 metrora, ezkerreko jo behar da pista tangential batean zehar **(6)**. Puntu jakin batean, bideak begizta baten forma dauka. 200 metro aurrerago, bidaztia mendate zabalera ailegatuko da **(7)** (5,2 Km). Aurrean loar eta La Plana mendien arteko muinoa ikusten da. Bertatik iragaiten zen Kodeeseko santutegira zihono antzinako bidea. Zuzen jarraituz, berritzen ari den izei-baso bat zeharkatzen da. Handik 200 metrora, loar mendira doan eskuinerako pista atzean utzi behar da. Ondoren, Douglas izei sail bat zeharkatu behar da. 100 metro aurrerago, bidea lur irekira iristen da eta bidegurutze batera ailegatzen da **(8)**. Bertan, ezkerreko jo behar da loar mendira igotzeko eskuinerako bidea atzean utziz, eta muino bat igotzeko hesi zahar batetik paralelo iragaiten den bidea hartu behar da. Ibilbide hau eta GR-1 eta PR-NA 189 ibilbideak tarte batean gainjartzen dira. Muinoaren gailurrera ailegatuz, Costalera mendiaren malkar zorrotzak begiztatzen dira. Handik gutxira, bidearen ertzean San Cristóbal ermitaren hondarrak daude **(9)**. Hortik aurrera, bidaztiak mendilerro nabariaren gailurretik ibili behar du 2,5 kilometrotan zehar, ikuspegi izugarria begiztatzen duen bitartean.

Nazarreko mendatera ailegatuz **(10)** (8,5 Km), seinale-tantai bat ikusiko du bidaztiak. Puntu horretan, bidea beheanzko pista batekin elkartzen da. Bidaztiak ezkerreko jo behar du pista horretan zehar, berriz ere pagadian barneratuko delarik. Bide horretatik jaitsiz, azkar gaitzen da altitudia. Ezkerretara 3. puntura daraman pista bat dago, atzean utzi beharrekoa. Handik 600 metrora, muino harritsu baten aurrean dagoen mendixka batera ailegatzen da. Pista utziz **(11)**, erkametz sendo baten oinean ezpeldian barneratzen den bidexka bat hartu behar da. Metro gutxira, bidexka hori beste bidexka batekin elkartzen da perpendikularki. Bigarren bidexka tik GR-1 ibilbidea jaisten da Tortura amildegira. Gure ibilbideari jarraituz, bidaztiak ezkerreko jo behar du Alto de la Cogollaizeneko muinora igotzeko. Bidexka bihurka iragaiten da ezpeldetik, lehenbizi pagaditik eta gero erkameztitik. 300metro aurrerago, tontorrera ailegatzen da. Puntu horretatik, haraneko ikuspegi ikaragarria begiztatzen da. Gailurrera heldu ondoren **(12)** (9,4 Km), zuzen jarraituz tontorra zeharkatzen da horren amaieraraino. Momentu horretan, ezkerreko biratzen da eta sastrakaz garbitutako bidexka malkartsu batetik jaisten da. Bidexka hori ehiztariek erabiltzen zuten antzina, eta landaretza koloreanitzaren artean erdi ezkatututa dago. Bidaztiak bidexka zuriei eta horiei jarraituz gidatu beharko du bere burua, baina ikuspegi zabalaz eta landaretza aberatsaz gozatzeko aukera izango du. Tarte luze batean zehar ibili ondoren, usoa ehizatzeko postu korrokoil bat gainditzen da. Hortik aurrera, bidea nabarmenagoa da eta ezpelak dituen artadi baten gerizpetik iragaiten da. 1,5 kilometroko aldapa bat jaitsi ondoren, bideak La Dornidara doan pistarekin bat egiten du **(13)**. Gure ibilbideak pista hori gurutzatzen du eta zuzen segitzen du artadi izugarri bat gainditzen duen bidexka batetik. Bide atsegin horrek 800metroko beheanzko aldapa dauka gero, artadi trinko baten gerizpean iragaiten dena. Horren ondoren, haranaren zaindariari eskainitako Ibernaloko ermitara ailegatzen da **(14)** (11,7Km). Ermita bisitatu eta gero, errepidetik jarraitzen du bideak, atsedeneleku bat gaindituko duelarik. 400 metro ibili ondoren, ezkerrean hormigoizko pista bat atzean utzi behar da (bertatik GR-1 ibilbidea adarkatzen da). Handik 800 metrora, ezkerreko jo behar da zurezko eskubanda bat daukan hormigoizko bide batean gora **(15)**. Aldapa berehala amaitzen da eta bidea bidexka eroso bihurtzen da. Bidexka hori erkametz gerizpetik iragaiten da eta txalet multzo bat inguratzen du. Bidexkak bide zabal batekin bat egiten du **(16)**. Puntu horretan, eskuinera jo behar da eta, segituan, ezkererako beste bidexka bat hartu. Bidaztiak horma txiki eta ubidez inguratutako baratzak gaindituko ditu Santa Kurutzeko txalet-errebaleko hormigoizko pista batera ailegatu arte. Errebaleko Larrainak (Eras del Arrabal), Errebaleko Frontoirako Igoera (Subida al Frontón de Arrabal) eta Errebal (Arrabal) kalei jarraituz, Samuel Picaza plazara bueltatzen da.

PROFILA



ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava